

M-etxea



Eze Collantes, Josemi Mtz. Rico, Jon Begiristain °

Gako-hitzak:
Etxebizitza-erabilerak,
esperimentazioa

Donostiako Arkitektura Eskolako ikasle eta irakasle talde batek osatzen dugu M-etxea. Mintegi honetan arkitekturaren erabilera dugu aztergai. 2007tik 2009ra Arkitektura Eskolan egindako tailerretan etxebizitzaren erabilera ikertu nahi izan dugu.

Arkitektura eskoletan egiten obi den azterketa teorikoa baztertu (arkitektoaren ikuspuntua), eta etxebizitzaren azterketa esperimentalean (erabiltzailearen ikuspuntua) oinarritu gara. Talde bakoitzeko partaideek lehen pertsonan esperimentatu dute aukeratutako gaia.

Ikerketaren helburua, erabileran berrikuntza bat proposatzea edo existitu/definitu gabe dagoen erabilera azaleratzea da. Ezarrita dagoen ordena hausten duten erabilerak izan dira aztergai, obiko sailkapenetan lekurik ez dutena, familiaritasunetik ibes egiten dutena.

Talde bakoitzak aukeratutako gaiaren inguruan mikroazterketa bat egin dugu. Ez da gure helburua etxebizitzaren funtzionamendu perfektua azaleratzea, aitzitik, etxebizitzak dituen gabeziak formalizatu nahi izan ditugu. Hortaz, emaitza teorikoa saibestu eta gauzatze konkretuetara jo dugu.

Tailerak bi panto nagusi izan dituen arren, talde bakoitzak libreki ekin dio ikerketari, batzuetan panto baten linealtasuna hantzi duelarik. Lehen urratsa analitikoa izan da (erabilera eta objektuen azterketa), bigarrena berriz propositiboa (akzio esperimentalen bidez). Erabilitako teknikak libreak izan dira, bai azterketan baita proposamenean ere. Arkitekturako planoetatik ibes egin eta beste espresio bide batzuk landu ditugu: foto-erreportajea, bideoa, eta abar.

Zazpi lan ildo izan ditugu tailer bonetan guztira. Bilakaera zabalena izan duten bi lanak aurkeztu nahi dizkizuegu adibide gisa.

bat




Egongelak (Ainara Iñiguez, Ismene Larringan, Inazio Aldazabal, Miriam Morcillo eta Arkaitz Quincoces)

bi hiru



Barazkiak etxean (Ioritz Galparsoro, Leire Martínez, Oihana Sanz, Irati Larrañaga eta Nerea Sanchez)

M-ueblea (Eneko Heriz, Jon A Juria, Ivan López, Eider Camarero, Jon Gurrutxaga)



bost



M-ueblea berrerabiliz (Estifxu Carretero, Iker Moya)

Eze Collantes, Josemi Mtz. Rico, Jon Begiristain



a) sukaldea etxeko elkargunea; b) sukaldea solasaldirako gunea; c) sukaldea irakurketa-gune berria (Amaia Garate).

Aurreikusi gabeko erabilerak

Ikerketa-ildo honek etxean gertatzen ohi diren aurreikusi gabeko erabilerak aztertu ditu. Etxearen kontzepzioan eredu funtzionalista gailendu zaigu, eta badirudi espazio bakoitzak erabilera zehatz bat duela: egongela, egoteko gela; sukaldea, suan aritzeko gela;... Hainbat distortsio ematen dira etxean zehar erabilera/espazio binomioari dagokionez, printzipioz elkarrezinak diren erabilerak batera azaltzen baitzaizkigu askotan.

Objektuek ere badute harremana erabilera/espazio binomio horrekin. Badirudi gure etxe-etako zenbait objekturen posizioa mugiezina dela, eta dagokion espazioari erabat lotuta daudela. Objektu deskontestualizatu baten txertaketaren bidez, espazio horren erabileraren kontaminazioa eragingo dugu. Azterketa honetako bigarren saiakeran, egongelako eserlekua (sofa) sukaldean kokatzea izan da (7. irudia). Ondorio gisa, etxeko erlazioak erabat eraldatzen dira: sukaldea etxeko erlazio-gune bilakatzen da, sukaldariaren eskusioa ezabatuz.

Balkoian burutu dugu azken akzioa: erabilera/objektu/espazio erlazioa berez disoziatuta duen espazioan. Taldekide batek 24 ordu etxeko balkoian eman ditu, bertan sor daitezkeen erabilera, beharrak, onurak eta kalteak aztertuz. Dimentsio txikiak izan arren, malgutasun ikaragarria erakutsi digu espazio honek. Horretaz gain, espazio domestikoaren eta publikoaren arteko harremana aztertzeko ikerketa-ildo berria ireki digu (8.irudia).

zortzi




Balkoia, erabilera finkorik ez duen etxeko espazioa (Amaia Garate. Josemi Mtz. Rico, Aitor Leceta).

Ezkutalekuak

Bigarren ikerketa-ildo honek ezkutalekuen gaia izan du aztergai eta kontrako bidea egin du: elementu propositibo batetik abiatu ondoren egin dugu ezkutaleku domestikoen inguruan gogoeta.

Plano batetik bolumenera igaro daitekeen artefaktu baten sorrera izan da ikerketaren lehen pausoa. Bastidore batean atxikita dauden zirkulu eta elipse baten bidez, banaketa elementu bat babesleku bilakatzen da.

bederatzi



Zirkulu eta elipsearen mugimendu bateratuaz planotik bolumenera pasako gara (Martin Ferran, Jon Arruebarrena).



hamar

Sortutako artefaktua gaitasun topologikoa edukitzeaz gain, ezkutaleku edo babesleku ere bada. Hortik abiatuta, etxebizitzan ditugun ezkutalekuen inguruko gogoeta egin dugu. Ezkutatzeko akzioak, ordea, ez du fisiko edo espaziala izan behar, jarrera kontua ere izan daiteke. Etxeko tranpola edo mahai baten azpialdea (haur batentzat) izan daitezke ezkutaleku fisikoak. Ezkutaketaren bilakaerari eutsiz, erakustea (amu gisa), garden bilakatzea edota arreta desbideratzea izan daitezke ezkutatzeko biderik egokienak.

Teatroko oroitarazlea, aktorearen euskarri gisa azaltzen zaigu. Aktore-ikusle kanalean bitartekoa da oroitarazlea, eraldaketarako elementu indartsua, gure begietara desagertzen dena. Etxebizitzan ere (oroitarazlea bezalaxe), badaude egunerokotasunean esku hartzen duten egitura ezkutatuak, ez fisikoak, erabileraren eraldaketan indar handia dutenak.




hamaika



Artefaktuaren bolumena osatuz. (Martin Ferran, Jon Arruebarrena).

Taldekieak Artelekun lanean. (Martin Ferran, Jon Arruebarrena).



hamabi